



### 1. Argibide orokorrak

Biztanleria (2017):	4.594
Zabalera:	143,43 km <sup>2</sup>
Nafarroa2000 zer eskualdetakoa:	Lizarreria ( <a href="#">ikus mapa</a> )
Udalerriak:	Aras, Cabredo, Genevilla, Lapoblación, Marañon, Viana

Nafarroa2000 zonifikazioan Vianako eskualde oinarrizkoa Lizarrerriko eskualdean baitago, aurrekoek gain, ondoko orrialdeko irudian agertzen dira Lizarrerriari dagozkion adierazleak, bizimoduei, enpleguari eta ikasketa mailari buruzko inkestetatik aterak. Horien arabera, eskualdeko gazteen %37,4k diote alkohol kontsumo intentsiboak egiten dituztela (binge drinking) eta %25,7k kontsumitzen dute tabakoa egunero.

### 2. Komunitatea eta osasuna

Vianako eskualde oinarrizkoko biztanleriaren piramideak erraboi itxura du; 35etik 70 urte bitarteko biztanleak dira nagusi, nahiz eta oinarrian talde franko agertzen diren. Vianako eskualde oinarrizkoa, oro har, Nafarroako batez bestekoaren antzekoa da adierazle gehienetan; horiek ondoko orrialdeko irudian agertzen dira.

Vianakoa dago emaitza hoberenak agertzen dituzten eskualde oinarrizkoen %25en artean, haurren obesitatearen prebalentziari dagokionez (%3,4), diabetesa diagnostikatu duten pertsonen prebalentziari dagokionez (%5,4), eta gizonezko jaioberrien bizi itxaropenari dagokionez (81,2 urte). Kontrara, emaitza okerrenak agertzen dituzten eskualde oinarrizkoen %25en artean dago, urteko kontrol erregistratua duten diabetikoen portzentajeari dagokionez (%50,4).

### 3. Osasunerako baliabideak

Komunitatean osasunerako aktiboak daude, hay da, Osasuna eta ongizatea mantentzeko eta sortzeko pertsonak, komunitateek eta herriek duten gaitasuna indartzen ahal duten baliabideak (salutogenesis).

[-> Ikus eskualdeko aktiboen mapa](#)

## 4. Adierazleen laburpena

Ondoko irudian agertzen dira, adierzle sorta baterako, eskualdeko balioak (puntu gorria) Nafarroako batez bestekoaren aldean (barra bertikala) eta Nafarroako eskualde oinarrizkoen multzoaren aldera. ADierazleen deskribapen zehatzagorik nahi izanes gero ikus daitezke haien [banakako fitxak](#), behatokiaren webgunean.

Grupo	Indicador	Periodo	Nº casos		Valor		Media		Mejor
			Zona	Zona	Zona	Navarra	Peor		
Factore soziodemografikoak	1. Jaiotza tasa	2015	41	9,0	9,4	3,7		27,0	
	2. 14-19 urteko ama duten jaioberriak	2011-2015	< 5	6,1	5,4	16,7		0,0	
	3. Gehienez ere lehen mailako ikasketak dituzten gazteak #	2011	114	6,7	9,2	15,7		6,7	
	4. Langabezia tasa #	2016	-	14,1	12,5	14,5		7,9	
	5. Muturreko pobrezia arriskuaren tasa	2015	-	8,4	8,8	16,6		4,7	
	6. Zahartzaroko mendekotasun indizea	2016	1.043	36,4	29,5	63,9		2,7	
	7. Bakarrik bizi diren > 80 urteko emakumezkoen etxeak	2016	-	32,8	39,0	49,1		15,8	
	8. Bakarrik bizi diren > 80 urteko gizonezkoen etxeak	2016	-	20,4	19,1	35,1		10,3	
Bizimoduak	9. Partez edo guztiz amagandik edoskitzen duten 6 hilabeteko	2015	25	60,0	61,2	44,4		80,0	
	10. Sedentarisinoa gazteetan (14-29 urte) #	2013	13	17,9	20,2	27,5		16,0	
	11. Alkoholaren kontsumo intentsiboa gazteetan (14-29 urte) #	2013	29	37,4	37,8	45,1		28,2	
	12. Tabakoaren kontsumoa gazteetan (14-29 urte) #	2013	20	25,7	22,6	28,4		19,6	
	13. Tabakoaren eguneroko kontsumoa #	2012	39	21,6	20,5	25,0		19,2	
	14. Antsiolitikoaren eta antidepressiboaren kontsumoa emakumezkoetan	2016	408	16,7	17,7	21,9		11,7	
	15. Antsiolitikoaren eta antidepressiboaren kontsumoa gizonezkoetan	2016	226	9,7	8,6	12,5		7,3	
Gaixotze-tasa	16. Haurren obesitatearen prebalentzia (0-5 urte)	2015	10	3,4	4,3	8,7		2,0	
	17. Diabetesa diagnostikaturiko pertsonen prebalentzia	2017	235	5,4 *	7,1	9,0		4,6	
Osasun Sistema	18. HbA1c-ren neurketa duten diabetikoak	2016	125	50,4 *	67,8	47,4		94,2	
	19. TA-ren neurketa duten hipertentsoak	2016	497	62 *	65,4	49,9		90,7	
Heriotza-tasa	20. Emakumezkoen bizi-itxaropena jaiotzean	2008-2015	-	86,1	86,2	83,6		87,6	
	21. Gizonezkoen bizi-itxaropena jaiotzean	2008-2015	-	81,2	80,1	78,0		84,1	

**Adierazleen iturria:** 1-2: Bizt. Mugimendu Nat.; 3: Zentsua; 4: Bizt. Aktiboaren Ink.; 5: Errenta Estat.; 6-8: Errolda; 10-12: Naf. Gazteen Ink.; 13: Bizi-Baldintzen Ink.; 14-15: Botika Prest.; 9, 16-19: Oin.Osasun Lag.; 20-21: Naf. Osasun Pub. eta Lan Osas. Inst.

# Lizarrerriko adierazleak, Nafarroa 2000 zonifikazioaren arabera (NEI). Irudian adierazten diren balioen kopurua: 7 balio, 3, 4 eta 13. adierazleetan; 6 balio, 10-12. adierazleetan.

\* Nabarmen desberdinak ( $p < 0,05$ ) Nafarroako emaitzatik (bizimoduaren, gaixotze-tasaren, osasun sistemaren eta heriotza-tasaren adierazleetarako egindako kontrastea). **1.** Jaiotze-tasa gordina (%); **2.** Urteko ugalkortasun-tasa berariazkoa (%) 14-19 urteko ametan; **3.** 2. gradu ikasketak burutu ez dituzten 20-24 urteko gazteen %; **4.** Langabetuen % biztanleria aktiboaren aldean, 4 hiruhilekoko batez bestekoa; **5.** Etxeko guztien errentaren baturak pobrezia atalasetik behara egiten duenean, halako etxeetan bizi diren pertsonen % (kontsumo unitate bakoitzeko urteko diru-sarreraren medianaren %30, pertsonen banaketa hartuta. Pobrezia atalasea, 2015ean: 5150 €); **6.** ≥ 65 urteko pertsonen %, 15-64 urteko pertsona guztien aldera; **7 eta 8.** Bakarrik bizi diren ≥ 80 urteko pertsonen %, adin horretan familiaren etxebizitzetan bizi diren guztien aldean; **9.** 170-190 egunetara partez edo osotara amagandik edoskitzen duten bularreko haurren %; **10.** Ohiko jardueran nahiz aisialdian jarduera fisiko urria edo batere egiten ez duten 14 – 29 urteko gazteen %; **11.** Azken 30 eguneko kontsumo trinkoa edo betekada (*binge drinking*) egin duten 14-29 urteko gazteen % (4 EUE edo gehiago emakumeen artean, eta 5 EUE edo gehiago gizonezkoen artean, bi orduz); **12.** Egunero tabakoa kontsumitzen duten 14-29 urteko gazteen %; **13.** Egunero tabakoa kontsumitzen duten ≥ 15 urteko pertsonen %; **14 eta 15.** Azken urtean, talde hauetarikoren bateko 3 ontzi gutxienez kontsumitu dituzten pertsonen tasa doituia: N50B antsiolitikoak, N05C hipnotikoak eta lasaigarriak eta/edo N06A antidepressiboak (T. gordina: emakumezkoak 19,6 eta gizonezkoak 10,6); **16.** Obesitatearen prebalentzia doituia 0 - 5 urteko biztanlerian, OMEak haurren hazkunderako dituen patroien arabera definiturik (z-score ≥ +2); **17.** 2 motako diabetesa duten ≥ 20 urteko pertsonen prebalentzia doituia (T. gordina: 6,8); **18.** 2 motako diabetesa izanik, azken urtean hemoglobina glikosilatua neurketa (HbA1c) izan duen biztanleriaren %; **19.** Azken urtean hipertentsioa diagnostikatu eta tentsio arteriala neurtu zaion biztanleriaren %; **20 eta 21.** Pertsona bat egungo heriotzatasen arabera ustez biziko den batez besteko urte kopurua.